


ARGANTZUN

ARGANTZUNERA BIDAIA



Egileak:

Argantzun Ikastola

LH4-5



Ikastolen Elkartea

ARGANTZUN gozatu

TXIRIBIL



Hello, my name is Txiribil.
I'm very vigorous, and I like
staying with children. To be hidden
in the village and to know all the
paths so you have to find me.

Aurkezpena

Kaixo, nik Txiribil dut
izena. Oso bizkorra naiz
eta umekin egotea
gustatzen zait. Herritik
izkutatuta nago eta bide
guztiak badakizkit.
Bideak erakustea nahi
baduzue herritik
aurkituko nauzue.

Presentación

Hola, me llamo Txiribil.
Soy muy ágil y me gusta
estar con los niños.
Estoy escondido por el
pueblo y me se todas las
calles. Si queréis que
os enseñe el pueblo, me
teneis que encontrar.

ARGANTZUN

begirada batean



Kokapena

Arabako hego-mendebaldean dago, herrialdearen bihotzean. Trebiñuko konderriaren barruan hain zuzen ere.

Erliebe-elementuak

Argantzunetik Zadorra ibaia igarotzen da, Arabako ibai garrantzitsuena. ArgantzunÂ ondoan, Peña Maria mendia dago eta bertan gazteluaren arrastoak ikus daitezke.

Bestelako informazioa

Argantzun XII. mendean eraiki zen. XI. mendean, Nafarroako erregearekin batera borrokatu ziren trebiñoarrak Gaztelako erregearen aurka. 1201. urtean Gaztelaren menpe geratu zen lur trukaketa bati esker. Nahiz eta biztanleen %98a Arabaren parte izatea nahi duen, oraindik Gaztelaren menpe dago. Gaur egun (2022), Argantzuneko biztanle kopurua 2.023koa da.

Argantzungo guda 801. urtean hasi zen.

ZER IKUSI (Interesgune naturalak)

IBAIA



Argantzungo ibaiak Zadorra izena du eta Arabako ibai garrantzitsuena da. Herrialde horretan arroiarik handiena duena da eta Entziako mendilerroan jaiotzen da, Los Corrales izeneko iturrian. Ibaiak guztira 78,1 kilometroko ibilbidea egiten du eta 20,6 metro/segundoko emaria dauka batazbeste.

ZER IKUSI (Interesgune naturalak)

PEÑAMARIAKO DORREA



Peñamariako dorreak 2.500 urte baino gehiago ditu. Inguruan herri erromaniko bat dago. Dorrea ikusgai dago, inguruan foso bat dago eta oso-oso sakona da. Ondoan beste dorre bat zagoen bana orain erorita dago.

ZER IKUSI (Interesgune artistikoak)

ERDI AROKO ZUBIA



Argantzungo zubia XIII. mendekoa da, erdi arokoa. Gotiko estilokoa da, harrizkoa da eta hiru begi ditu. Garai horretan, harresituta zegoen herrian satzeko sarrera bezala erabiltzen duten.

ZER IKUSI (Interesgune artistikoak)

ASUNCIÓN ELIZA



Nuestra señora de la Asución eliza XV. mendearen bukaerakoa da eta 1991. urtean ondare kultural bezala ezarri zuten. Gotiko estilokoa da eta oso polita da barrutik zein kanpotik.

Zirkuituaren mapa

Legenda

Norabidea



Abiapuntua



Helmuga



Erreferentzia-puntua



Interessuspuntua



Zirkuituaren deskribapena

Zure zirkuituaren lehen urratsa



- Abiapuntutik lehen interesgunera joango gara, garbitokira.

Deskribapena

Plazatik hasiko gara eta ikastola kokatuta dagoen kalera abiatuko gara, Cercas kalea. Kale hau jarraitu eta bide gurutzean eskumara hartuko dugu eta segituan ezkerretara biratu. Pixka bat aurrerago hor egongo da garbitokia.

Zirkuituaren deskribapena

Zure zirkuituaren bigarren urratsa



- Lehenengo interesgunetik bigarren interesgunera joango gara ermitara joateko.

Deskribapena

Garbitokiaren ondoan ermita topatuko duzue. Nuestra señora de la Antigua deitzen da eta duela gutxi berriztuta dago. Estilo gotikoa du, trantsizio barrokoa eta errenazentista. L forma dauka, baseliza batez eta ospitaleaz osatua.

Zure zirkuituaren hirugarren urratsa



- Bigarren interesgunetik hirugarren interesgunera joango gara, errotara.

Deskribapena

Errepide nagusira atera eta lehenengo bidegurutzean ezkerrera biratu eta zuzen joango gara aldapatxoa jeitsiz. Bertan errota topatuko dugu. Gaur egun itxita dago eta ez du errota funtziorik betetzen. Inguruan herriaren harresi zaharra ikus dezakezue.

Zirkuituaren deskribapena

Zure zirkuituaren laugarren urratsa



- Hirugarren interesgunetik laugarren interesgunera joango gara, erdi aroko zubira.

Deskribapena

Harresiko eskaillerak igo, ezkerrera biratu eta aurrera jarraituz ezkerretara aurkituko duzue zubia.

Zure zirkuituaren bostgarren urratsa



- Laugarren interesgunetik helmugara joango gara (helmuga eta abiapuntua berbera da), herriko plazara.

Deskribapena

Berriro herrian sartu eta elizara heltzean eskumara biratu. Hortxe dago herriko enparantza nagusia. Bertan bi taberna aurkituko dituzue zerbait hartzeko,Â edozein galdera argitzeko udaletxea eta deskantsatzeko hotel bat.

Bisitariენტzako gomendioak

Udan ibaira bazoaz bainujantzia eraman.

Txakurra baduzu, bere kaka jaso.

Si vais al rio en verano llebar bañador.

Si tienes perro, recoge su caca.

if you go to the river in summer wear a swimsuit.

If you have a dog, pick up his shit.